

BAD jaialdiaren XV. edizioan consonni arte zentroaren parte hartze berezi bat izango da. consonnik irekitze ekitaldia egingo du, saiakera baten aurkezpena (Marcelo Expósito) eta bi lan estreinatuko ditu (Cabello/ Carceller eta Pablo Marte), BAD eta consonniren arteko elkar-ekoizpena.

URRIaren 23tik AZAROaren 3ra ospatuko den BAD 2013n, 21 konpainia egongo dira, Bilboko eszenatoki desberdinetan ospatuko dena. XV.edizio honetan consonni arte ekoiztetxearen kolaborazio berezi bat izango da.

- Irekitze ekitaldia, urriak 23, 21.00

consonni (conde mirasol cortes kalearekin) BAD-en inaugurazio ekitaldiaren egoitza izango da, Pablo Fidalgoren bostgarren poema-liburuaren aurkezpena, *Mis padres: Romeo y Julieta* (Arg. Pre-textos) Harkaitz Cano bertan izango delarik.

- Estreinaldiak

consonni arte ekoiztetxearen jardunetik abiatuz, *Pájaro y Ornitólogo al mismo tiempo*, proiektuarekin arte erakundeetan erresidentzian egon ginen (Iaspis, Matadero, Hangar, ISCP...), baita testuinguru desberdinak bisitatu ere (Madril, Bartzelona, Estocolmo, NYC, Montreal...).

Honen bidez arte garaikidearen ekoizpenaren inguruko ikusmoldeak aztertzen ditugu. Ikerketa artistiko honek, oraindik zabalik eta prozesuan dagoenak, ekoizpen tresnak eta hauen baldintzak agerrarazi nahi ditu ekoizpen katean banako bakoitzaren lekuaren inguruko hausnarketa egiten duen bitartean.

consonni arte ekoiztetxearen ikerketa lan honen ondorio moduan saiakera bat aurkeztu eta BADekin elkar-ekoiztutako bi lan estreinatzen ditu.

***Walter Benjamin, productivista*, Marcelo Expósito**

Urriaren 23tik azaroaren 3ra bitartean, ANTI-Liburudendan (maiatzaren 2 kalea, 2)

Ekoizpenaren kontzeptuaren inguruko ikerketaren bibliografia kontsultatu ahal izango da. Walter Benjaminen saiakera bat oroitzen duen saiakera, 1934an *El autor como productor*, Parisen egitea aurreikusten zen baina inoiz eman ez zen hitzaldi baterako ohar moduan sortua. *Walter Benjamin, productivista* 2009an Marcelo Expósitok egindako hitzaldi moduan agertu zen. consonnik argitaratuko duen sail baten lehenengoa dugu testu hau, Benjaminen jatorrizko testuaren inguruko berrinterpretazioak egingo dira egile desberdinen eskutik.

Informazio gehiago eta sarean erosteko: <http://www.consonni.org/es/publicacion/walter-benjamin-productivista>

Performer, Cabello/Carceller

Igandea, urriak 27 eta azaroak 3. *Bilboko Arte Ederren museoa*, 19.00.

Performer-ek egungo arte sorkuntza eta erakustaldien dinamikak elikatzen dituzten kontraesanak erakusten ditu, egon daitezken gabezia eta zailtasunak nabarmenduz. Museoko biltegian, arte bilduman beste "objektu" bat bezela gordeta eta erregistratuta dagoen performer batek praktika artistiko garaikideen eta honen prozesuen paradoxetaz egiten dituen gogoetak. Bere elkarrizketa bakartia entzutea besterik ez dugu izango inkoherentea eta kontraesankorra den egoera hortaz konturatzeko. Ekintza eta bideoz osatutako proiektua da *Performer*, biek muga sozial eta diziplinarioak zalantzan jartzen dituzte.

Argazkiak eta informazio gehiago: <http://www.consonni.org/es/proyectos/performer>

Again, again(st), Pablo Marte

INSTALAZIOA: Urriaren 29an eta 30ean instalazioa ikusi ahal izango da.

Sarrera doan. Orduategia: asteartea 29, 12.00tatik 14.00etara eta 17.00tatik 21tara. Asteazkena, 30, 12tatik 14etara.

PERFORMANCE: Urriak 30, asteazkena 21.00. Sarrera alde aurretik 8€ , hemen eros daiteke (BADeko web orrian). 10€ Bilborock sarreran.

Pablo Marte-k zuzentzen du talde-ekoizpen bat, Iván Gómez, Daniel Llaría eta Lorea Alfaro artistekin batera. *Again, Again(st)* lanean bi praktika doaz batera, eszena zein erakusketa, bakoitzaren indarra alde batera utzi gabe. Nahiz eta antzezlan bezala argumentu barik aurkeztu, arte garaikide zentro baten sorrera plazaratzen den testuingurua aurkezten da. Artelana eta instalazioa Walter Benjaminen *El autor como productor* testuaren lan batetik sortzen dira. Hala ere, badago halako argumentu-testuinguru bat: B*, ahaldun handi bat, gizarteak berarekiko duen irudia eta berak ispilu aurrean ikusten duena bat ez datozela uste du (arraroa dirudien arren berak "maitasuna" ikusten du). Beraz, arte garaikide zentro bat egiteko erabakia hartzen du, bere aholkulariek itxura hobetzeko modurik onena hori dela esaten baitiote.

Argazkiak eta informazio gehiago: <http://www.consonni.org/es/proyectos/again-against>

consonni Bilbon dagoen arte ekoiztetxe bat da, 1997 urteaz geroztik artisten proiektuak ekoizten ditu eta 2009tik arte eta kultur kritikan espezializatutako liburuak argitaratu. www.consonni.org

BAD jaialdiaren XV. edizioa (BILBAO ANTZERKI DANTZA)
www.badbilbao.com